



ETXEZ ETXEKO JANARI ZERBITZUA

Pertsona nagusiei euren etxeetan nutrizio egokia eta orekatua izaten laguntzea da helburua.

Nori zuzenduta dago

Beharrezkoa da:

- Durangon errolatuta egotea.
- 80 urtetik gorako izatea.
- Menpekotasun ziurtagiria edukita 65 urtetik gorakoa izatea.



Ezaugarriak

- Bazkari zerbitzua urteko egun guztietan eskainiko da. Banaketak bi egunetan egingo dira: asteartetan (astearte, asteazken eta osteguneko menuak banatuko dira) eta ostiraletan (ostiral, larunbat, igande eta asteleheneko menuak).
- Bazkaria zentralizaturiko sukalde batean prestatu eta segurtasun zein higiene baldintzak betetzen dituen ibilgailu egokitan bananduko da.
- Bi menu mota daude aukeratzeko eta elikagaiekin lotutako beharrezkoen arabera dietak eskaintzen dira. Dieta berezien beharra medikuaren txosten bidez ziurtatu beharko da.

Menuen eskaera

- Menuak gutxienez 2 asteroarako aukeratu behar dira.
- Nahiz eta zerbitzua egunerokoa izan, astero gutxienez 5 eguneko menua eskatu beharko da.
- Erabiltzailearen edo familiaren ardurak izango da bitartekariari aukeratutako menuaren berri ematea.

Prezioak

Pentsioaren arabera izango dira (12 ordainketa).

Familia unitatea pertsona 1 bada	Bikoteak
800 euro baino gutxiago 4,50 €	1.300 euro baino gutxiago 4,50 €
800 euro baino gehiago 6,50 €	1.300 euro baino gehiago 6,50 €

Zerbitzuan izena emateko

- Zerbitzuan izena emateko ordutegia astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 16:00-18:00ra izango da, Adinekoen udal egoitzan.
- Alta emateko ondorengo dokumentazioa behar da:
 - Inskripzio orria, modu egokian bete
 - Nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (NAN).
 - Errola ziurtagiri kolektiboa.
 - Pentsioaren zenbatekoa egiaztatzeko Gizarte Segurantzaren agiria.
 - Bankuko kontu zenbakiaren ziurtagiria.
 - Menpekotasun balorazioaren fotokopia, kasua bada.
 - Zerbitzua aldi baterako eskatuz gero, medikuaren txostena.
 - Alergia edo intolerantzia kasuetan, medikuaren agiria.

Ordainketa

Zerbitzuaren ordainketa hilaren amaieran egingo da, eta udala arduratuko da erabiltzaileei banku bidez kuota kobratzeaz, bakoitzaren tarifak eta zerbitzu egunak kontuan hartuz.

Informazio gehiago

